

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Aldatzea 2022-2024ko dirulaguntzen plan estrategikoa

Aguraingo udalbatzak, 2023ko irailaren 28an egindako ohiko bilkuran, 2022-2024 ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa hau onetsi zuen:

1) 2022-2024 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzea, dirulaguntzen lerro hau sartuz:

GIZARTE ONGIZATE ETA BERDINTASUN ARLOA

Gizarte egoera berezian dauden partikularrentzako prestazio ekonomikoak.

1. Helburu estrategikoak	Derrigorrezkoak ez diren ikasketa arautuetara joateko garraioa behar duten ikasleei eta familiei laguntzea
2. Dirulaguntzek zein eskumen arlo eta sektoretan izango duten eragina	Laguntza horiek Ergoienan (Opakua, Arrizala, Egileor eta Alangua) bizi diren eta batxilergoko ikasketak edo prestakuntza zikloak Aguraingo Aniturri BHIIn egiten dituzten ikasleentzat dira
3. Helburu zehatzak eta aplikazioaren bidez lortu nahi diren eraginak	Garraiorako prestazio ekonomikoak
4. Denbora tarte/gauzatzeko beharrezko epea	2022-2024
5. Aurrera eramateko aurreikusten diren kostuak eta finantziazio iturriak. Urte anitzeko programazioa	- 2023ko ekitaldia: *1.000 € - 2024ko ekitaldia: *2.000 €
6. Ekintza plana: oinarri arautzaileak jaso behar dituzten oinarritzko ildoak eta horiek prestatzeko egutegia	Erabiltzaileek eskatuta ematen dira prestazioak. Prestazioaren iraupena eta ezaugarriek ikasturteari erantzuten diote, familia errentaren arabera
7. Etengabeko ebaluazioaren jarraipen araubidea eta planaren helburuekin zerikusia duten adierazleak	- Prestazio hori jasotzen duten pertsonen jarraipen txostena egingo da - Prestazioak irizpide progresiboen bidez ezarriko dira, bizikidetzaren unitatearen errentaren arabera
8. Dirulaguntza emateko araubidea/modalitatea	<input type="checkbox"/> Zuzena/Nominatiboa, hitzarmenik gabekoa <input type="checkbox"/> Zuzena/Nominatiboa, hitzarmenarekin <input checked="" type="checkbox"/> Norgehiagoka bidez
9. Onuradunak	Laguntza horiek Ergoienan (Opakua, Arrizala, Egileor eta Alangua) bizi diren eta batxilergoko ikasketak edo prestakuntza zikloak Aguraingo Aniturri BHIIn egiten dituzten ikasleak
10. Deialdiaren oinarrietan erakunde eskatzaileen aldetik berdintasuna benetan lortzeko jarduketarik aurreikusten al da?	<input checked="" type="checkbox"/> bai
11. Aurrekontu aplikazioa(k) eta zenbatekoa(k)	2023ko aurrekontu partida: 231.480-000 "Partikularrei egindako transferentziak" 1.000 €

2) Aldaketa hori ALHAOn, udalaren webgunean eta Aguraingo Udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Agurain, 2023ko urriaren 13a

Alkatea

RÁUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR